

Sakanaren etorkizun industrialaren alde: konpromisoa eta ekintza

Historikoki, industriak pisu handia izan du Sakanan. Funtsezko motor ekonomiko eta soziala izan da, eta belaunaldiz belaunaldi egonkortasuna eta enplegua eman die bertako familiei. Hala ere, gure eskualdeko industria-ehuna ziurgabetasun handiko egoera baten aurrean dago gaur egun, eta ezin dugu beste aldera begiratu.

Sakanan gero eta herritar gutxiagok dute aukera industrian lan egiteko, eta hori ekonomia arloko kezka ez ezik, ausardiaz jokatzerara behartzen gaituen erronka estrategikoa ere bada. Orain dela gutxira arte hazkunde-aurreikuspen oparoak erakusten zituzten hainbat sektorek, automobilgintzak eta energia eolikoak esate baterako, arazo latzak dituzte aurretik, euren garapena geldiarazten, eta, horrekin batera, gure eskualdeko lan-aukerak mehatxatzen dutenak.

Sunsundegui enpresarena bezalako kasuek agerian uzten dute egoeraren larritasuna. Izan ere, Altsasukoa trakzio-enpresa da, zuzeneko enplegua sortzeaz gain, beste enpresa hornitzaile batzuekin ekosistema enpresarial baliotsua egituratzen baitu. Une honetan lantegia inguratzen duen ziurgabetasuna aurrean ditugun erronka estrukturalen ispilu da, eta bere etorkizuna bermatzea estrategikoa izango da Sakana osorako.

Egoera horren aurrean, arazoaren konponbidean aktiboki inplikatzeko eskatzen diegu gizarte-, enpresa- eta gobernu-eragile guztiei. Bada garaia industria-enplegua egonkortzeko eta sektoreak gure tokiko ekonomian duen pisua indartzeko behar diren oinarriak finkatzeko.

Helburu horrek ikuspegi integrala eskatzen du:

- **Enpresa berriak erakartzea:** Ingurune egokia sortzea inbertsio berriak erakartzea erraztuko duena.
- **Polo industrialen birmoldaketa:** Gure gaitasunak eraldatzen ari den merkatuaren eskakizunetara egokitzea.
- **Dauden enpresak indartzea:** Sunsundegui bezalako proiektu estrategikoen iraunkortasuna bermatzea, haien lehiakortasuna eta enplegua sortzeko gaitasuna sustatuz.

Horregatik guztiagatik, Sunsundeguiko enpresa-batzordearen aldarrikapenak babestu eta herritarrak animatu nahi ditugu deitutako manifestazioan parte hartzera. Izan ere, haien eskaerek konpainia baten egonkortasuna ez ezik, eskualde osoari mesede egiten dion garapen eredu baten babesa ere bilatzen dute.

Honelako uneetan gogoratu behar dugu Sakanaren indarra bertako jendearengan datzala, zoritxarraren aurrean bat egiteko gaitasunean eta etorkizun oparoa eraikitzeko ahaleginean. Ordezkariek garen aldetik gure betebeharra da egoerari erantzun egokia ematea, erabaki ausartak hartzea eta Sakanak erreferente industrial eta soziala izaten jarraitu dezala bermatzea.

Sakanaren etorkizunak ezin duelako itxaron.

Lakuntzan, 2025-ko urtarrilak 16.